

IKASLEEN BIZIKIDETZA ARAUAK

Zuzendaritza-taldearen helburuetako bat Ikastetxeko bizikidetza-giroa hobetzea da, eta horretarako, diziplina-sistema argiari, bidezkoari, berehalakoari eta eraginkorrari eutsi behar zaionez, familien eta irakasle guztien inplikazioa behar da.

Gure Ikastetxearen helburua kalitatezko hezkuntza ematea da, hitzaren zentzu zabalenean hartuta. Horretarako, **prestakuntza akademiko eta heziketa zibiko** egokia eman eta bermatu behar da, ikastea eta hezkuntza-zeregina erraztuko duen bizikidetzaren bitartez. Arauak ez dira zigortzeko jartzen, guztiek **ikasteko eta prestatzeko duten eskubidea bermatzeko** baizik; horregatik, arauak arrazoiaren oinarrituta daude eta probetxuzko jarrerarekin proposatzen dira beti. Beraz, honako helburu hauek dituzte:

- Ikasle guztiei bermatzea hezkuntza izateko duten eskubidea
- Bizikidetza erraztea
- Gehiengoaren interesak errespetatzea
- Gutxiengoei laguntzea eta horiek errespetatzea
- Babesgabeenak babestea
- Jarrera konstruktiboa eta kooperatiboa sustatzea

Horrenbestez, derrigorrezkoa da, alde batetik, guztiok arauak errespetatzea, eta beste alde batetik, familiek irakasleei laguntzea arau horiek betetzen ote diren zaintzerakoan.

1. Errespetua

Hezkuntza-komunitateko kide guztiek gainerako pertsonak eta haien gauzak errespetatuko dituzte, eta irainak, diskriminazio-hizkuntza, keinu txarrak eta mota guztietako indarkeria saihestuko dute besteekiko harremanetan, betiere tonu eta hizkuntza egokiak erabiliz. Komunikazioaren oinarritzko arauak errespetatuko dira, hau da, hitz egiten ari denari entzungo zaio, hitz egiteko txandak errespetatuko dira eta besteen iritziak kontuan hartuko dira.

2. Eskola-esparrutik irtetea

1. Arrazoi justifikaturik gabe, eskola-orduetan DBHko ikasleak ezin dira ikastetxetik irten. Edozein kasutan, irakasleak eman beharko die ikastetxetik irteteko baimena.

2. Eskola-jardunaldiaren orduetan ezarritako atsedenaldietan, DBHko ikasleak Ikastetxeko patioetan egongo dira, dagokien irakasleak zainduta.

3. Portaera gelan:

- a) Ikasle guztiek puntualtasunez egon behar dute gela barruan eskola hasi aurretik.
- b) Ikaslea berandu azaltzen bada, irakasleari baimena eskatuko dio, gelan sartzeko eta atzerapenaren arrazoiaren berri emateko.
- c) Gela barruan, irakasleak toki bat esleituko dio ikasle bakoitzari. Inor ezin izango da tokiz aldatu irakaslearen baimenik gabe.
- d) Inor ezin izango da tokitik altxatu eskolan zehar, irakaslearen baimenik gabe.
- e) Ikasleak ongi eseriko dira, kulunkatu gabe, eta, ahal dela, ez dute zaratarik egingo aulki edo mahaia mugitu behar dituztenean.
- f) Oinarrizko material guztia eramango dute ikasleek eskola guztietara: arkatza, goma, bolaluma eta irakasgai bakoitzaren berariazko materiala. Eskola hasten den unean, ikasleak materiala prest eduki behar du.
- g) Janzkerari dagokionez zuzentasunez jokatu dute, itxura zainduz eta higiene pertsonaleko oinarrizko arauak errespetatuz.
- h) Ikaskideei arreta galaraz diezaieketen eta gela barruko lan- eta arreta-giro egokia asaldatzen duten jokabideak saihestuko dira: oihu egitea, jatea, edatea, txiklea mastekatzea, gelan barrena batetik bestera ibiltzea eta abar.
- i) Ikasleek gelaren ardura hartu behar dute: gela eta gela barruko material guztiak zaindu behar dituzte, gainerako ikaskideek ere erabili behar dituztela kontuan hartuta. Irten aurretik material guztia jaso behar dute, eta aulkia eta mahaia txukun eta garbi utzi.
- j) Irakaslearen baimenaren zain egongo dira gelatik irteteko, txirrinak dagoeneko jo badu ere.
- k) Eskola-esparru osoan ezin izango da eraman txanorik, biserarik...

4. Portaera eremu komunetan (pasilloak, terrazak, komunak, eskailerak, patioak):

- a) Eskola-aldaketetan, ikasleak gelan egongo dira, edo, hala badagokio, beste gela batera mugituko dira.
- b) Pasilloen eskuinaldea erabiliko dute mugitzeko.

- c) Ikasleek gelaren atean egon behar badute irakaslea etorri arte, hormaren ondoan jarriko dira beste ikaskideei trabarik ez egiteko.
- d) Irakasleen, agintari akademikoen eta ikastetxean diharduten langileen jarraibideei obeditu egingo zaie eta bete egingo dira.
- e) Armairua behar bezala erabiliko da, materiala ordenan jarrita, ixtean atea kolpatu eta behartu gabe eta abar.
- f) Hondakinak dagozkien edukiontzietan utziko dira.
- g) Ikaskideen gauzak ez dira erabiliko haien borondatearen aurka (estutxeak, agendak, koadernoak, liburuak eta abar ezkutatuz eta horiekin jolastuz adibidez).
- h) Pasilloetan, komunetan eta eskaileretan elkarbizitza ez da galaraziko, oztopatuko edo asaldatuko (jolastuz, korrika edo oihu eginez, bultzatuz, materiala lurrian utziz eta abar). Pasillo eta eskailerak igarobideak dira. Hortaz, ikasleek jarrera eta portaera egokia eduki behar dute horietan, ikastetxearen jarduera ongi gara dadin ahalbidetzeko.
- i) Debekatuta daude bultzatzea, kolpatzea, iraintzea eta abar dakarten erasozko edo indarkeriazko jokoak

5. Portaera jangelan

- a) Ikasle bakoitzari toki bat esleituko zaio jangelan, eta inork ere ezin izango du tokiz aldatu zaintzailearen baimenik gabe.
- b) Inor ezin izango da tokitik altxatu bazkarian, zaintzaileen baimenik gabe
- c) Jankide guztiek jangelan egon behar dute, puntualtasunez, dagokien txandaren arabera.
- d) Bazkaria amaitzean, mahaia jaso eta txukundu egingo dute.
- e) Jangela Zerbitzuaren funtzionamenduan zehar erabiltzaileak eskola-esparruan egongo dira, eta ezin izango dira irten Ikastetxeko Zuzendaritzak edo arduradunak esanbidezko baimena ematen ez badu.
- f) Jankide guztiek errespetuz komunikatu behar dute elkarren artean, eta iraina ez da ezein kasutan komunikazio modu egokitzat onartuko.
- g) Ikasle guztiek oinarrizko hezkuntza- eta bizikidetzara- arauak bete behar dituzte.

6. Eskola-esparruan honako hauek debekatuta daude:

- a) Erretzea, alkohola edatea eta osasunarentzat kaltegarri diren substantziak kontsumitzea.
- b) Mugikorrak, argazki-kamerak, grabatzeko erabil daitezkeen aparatuak edo gailu elektronikoak (MP3, kaskoak, Ipod, laserra

eta abar) eramatea, eskola-esparruaren barneko (gela, pasilloa, patioa, jangela, aldagelak eta abar) jardueren ohiko garapena oztopa dezaketen neurrian.

- c) Ikastetxetik kanpoko pertsonei baimenik gabe sartzeko aukera ematea.

Ikastetxeko erregelamendua ez betetzeak dakartzan ondorioak:

- Kasu guztietan, ikasleek barkamena eskatuko dute eta berriz ez egiteko konpromisoa hartuko dute.
- Ikasle batek ez badu irakasleak esandakoa betetzen, irakasleak behar adina ohartarazi ondoren, larritasunaren arabera: familiari jakinaraziko zaio, kanporatze-parte bat edo idazki bidezko kargu-hartze bat irekiko da.
- Laidoen edo irain larrien kasuan, kargu-hartze parte bat irekiko da beti.
- Nahasmenduaren, zikinkeria eta abarren kasuan, irakasleak ez dira eskola ematen hasiko ikasgela txukun eta garbi egon arte (eskola duintasunez eman ahal izateko behar den bezain garbi eta txukun).
- Kalteak eragiten baldin badira, kaltetu dena konpondu beharko da edo konponketak eragin duen kostu ekonomikoa ordainduko beharko du ikasleak. Ikasgela batean kaltea edo lapurreta egin dutenak azaltzen ez badira, talde osoak ordaindu beharko ditu kostuak zati berdinetan.
- Zabarkeria, utzikeria eta abar direla medio, edo ahaztu egin zaiolako ikasleak ez badu materiala ekartzen, familiari jakinaraziko zaio eskola-agendaren edo tutorearen bitartez.
- Ikasleak eskolaren ohiko garapena eteten badu, kanporatze-parte batekin zigortuko da. Horretaz gain, departamentu didaktiko bakoitzak bere programazioetan ezartzen dituen ondorioak izango ditu kalifikazioetan.
- **Gailu elektronikoak:** irakasleak kendu egingo du eta Ikasketa Burutzan utziko du, eta han egongo da gordeta ikaslearen gurasoak, Ikasketa Burutzarekin hitzordua jarri ondoren, bila joaten diren arte. Era berean, ikaslea intzidentzia batekin zigortu ahal izango da lehenengo aldi, eta idazki bidezko kargu-hartze batekin hurrengoetan.